

Lezok urrian hasiko ditu ipuin kontaketa saioak

Andreonek literatur lehiaketako oinarriak argitaratu ditu

LEZO. Andreone udal liburutegiak urtero udazkenean antolatzen dituen ipuin kontaketa saioen hi-tzorduak zehaztu ditu dagoneko. Lehenengo kontalaria urriaren 14ean eskainiko du bere lana Lezon eta azaroan zehar ere saioak egongo dira. Guztira, zazpi narratzaile izango dira liburutegian. Beste urtetan legez, saioak asteazkenetan 18.15ean izango dira lau eta zazpi urte bitarteko haurrentzat espresuki prestatuta. Ekimen honen helburua irakurzaletasuna gaztetxoan artean txikitatik zabaltzea da. Udazkenean ere, bi literatur lehiaketa antolatzen ditu Andreone liburutegiak. Jadanik XVI. Jon Garbizu Olerki Sariaren eta XVI. Lope Isastikoa Ipuin Sariaren oinarriak argitara eman dituzte Udalaren web orrialdean (www.lezo.net, liburutegia atalean). Bertan, sei eta hamabost urte bitartekoek parte har dezakete.

Amaitzeko, Andreone udal liburutegiak uztaila eta abuztuan zehar astelehenetik ostiralera goizez bakarrik, 9.00etatik 13.00etara zabalik egongo dela gogorazi du. Ordutegi hau uztailaren 6ra arte mantenduko dute. Irailaren 7tik aurrera, aldiz, udazkeneko ordutegia ezarriko dute.

Ipuin kontaketak

- Urriaren 14ean. Lur Korta ipuin kontalariak Ipuin Borobilak istorioa kontatuko du.
- Urriaren 21ean. Pello Añorgak Ipuin kontalariaren lapikoa bilduma eskainiko du.
- Urriaren 28an. Korri eta Xalto pailazoen Lezoko kontu zaharrak gogoratuko dituzte.
- Azaroaren 4ean. Ines Bengoa kontalariaren eskutik, Karabi Karaba ipuina entzuteko aukera izango da.
- Azaroaren 11n. Maite Frankok Kokoriko, zu bai tontolapiko ipuina ekarriko du.
- Azaroaren 18an. Lupe Lekuonak Igela Mikela ren istorioa kontatuko die haurrei.
- Azaroaren 25ean. Antton Irusta ipuin kontalariaren eskutik, Munduari itzulua hamaika ipuinetan gozatzeko aukera izango da.